

# **Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena.**

## **20. artikulua. Salbuespenak barne eragiketetan.**

**Bat.** Ondorengo eragiketak Zergaz salbuetsita egongo dira:

23. Foru Dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoari jarraiki zerbitzutat hartzen diren errentamenduak eta gozatu eta baliatzeko eskubide errealen eraketa eta eskualdaketa, eskubide hauen xedea honako ondasun hauek direnean:

a) Lurrak, landa finka baten ustiapenerako erabilitako nekazaritza izaera duten eraikuntza higiezinak barne.

Lurraren ustiapenetik at abeltzaintza ihardueretara dedikatutako eraikuntza higiezinak kanpo geratzen dira.

b)<sup>40</sup> Soil-soilik etxebizitza gisa erabiliko diren eraikinak edo hauen zatiak, edo horien geroko errentamendurako bideratutakoak. Azken kasu horretan, nahitaezkoa da errentatzaileak etxebizitzari laguntzeko programa publikoen entitate kudeatzaileak izatea edo Sozietateen gaineko Zergan etxebizitzaren errentamenduan aritzen diren entitateentzat jasota dagoen araubide berezira bildutako sozietateak izatea. Salbuespenak garajeak, etxebizitzaren eranskinak eta eraikinekin batera errentan emandako altzariak hartuko ditu.

Ondorengo hauek ez dira salbuetsita egongo:

a´) Ibilgailuak aparkatzeko lurren errentamenduak.

b´) Ondasun, merkantzia edo ekoizkinak gorde edo biltzeko, edota enpresa jarduera bateko elementuak instalatzeko lurren errentamenduak.

c´) Erakusketetarako edo publizitaterako lurren errentamenduak.

d´) Erostea aukera emanda egiten diren lurren edo etxebizitzaren errentamenduak, haien ematea zergapetuta eta zergaz salbuetsi gabe dagoenean.

e´) Apartamentu edo etxebizitza altzaridunen errentamenduak, errentatzaileak ostalaritzari propio dagozkion zerbitzu osagarrietako bat emateko obligazioa hartzen duenean, hala nola jatetxea, garbiketa, arropa garbiketa edo antzekoak.

f´) Eraikinen edo hauen zati baten errentamenduak, azpierrean emateko direnean, aurreko b) letran xedatutakoaren arabera egindakoak izan ezik.

g´) Hiri Errentamenduen Legean xedatutakoari jarraiki etxebizitzekin parekatzen diren eraikinen edo hauen zati baten errentamenduak.

h´) Aurreko a´), b´), c´), e´) eta f´) letretan aipatu diren ondasunen gainean gozatu edo baliatzeko eskubide errealak eratu edo eskualdatzea.

i´) Azalera eskubide errealak eratu edo eskualdatzea.

---

40 b) letra hau otsailaren 21eko ZERGA ALORREKO PRESAZKO 1/2006 FORU DEKRETU ARAUAREN 1 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru dekretu arau horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia 30/2005 Legeak eta 1/2006 eta 2/2006 Errege Lege-Dekretuek lurralde komunean sartutako aldaketetara egokitzen du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2006-03-02ko GAO). Aldaketak 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.